




ALEA

arabako aldizkaria



MAIRUELEGORRETAKO EUSKAL JAIA
LURPEAN EREITEN DEN EUSKARA

BEA



... etorkizuna
abian da ...

HASI DIRA LANAK

**BUS ELEKTRIKO
ADIMENTSUA**
BEA

info+: vitoria-gasteiz.org/bea



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Arabako Foru
Aldundia
Diputación
Foral de Álava



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



ALEA 205

2019-09-06 OSTIRALA

AZALEKO IRUDIA:

ZIGOITIA EUSKARAZ TALDEA

Aurkibidea

- 4 **Sakonean.** Mairuelegorreta, euskararen eta euskal kulturaren sinboloa.
- 8 **Protagonista.** Gorka Knörr, politikaria.
- 12 **Iritzia.** Txema Ramirez de la Piscina, 'Udamenez'.
- 13 **Iritzia.** Irati Iciar, 'Maitasunaren zikloa'.
- 14 **Sarean.** #Oiloak.
- 15 **Iruditan.** Festival jaialdian, erdal ekoizpenak nagusi.
- 16 **Gizartea.** Laudioko hiltegia behin-behinean itxita.
- 18 **Gizartea.** Gasteiz Batuko Iker San Miguel Lizarralde: "Trena lurperatzeak Gasteiz osoari eragiten dio".
- 20 **Esanak eta laburrak.**
- 22 **Gizartea.** BihotzAraba aurkeztu dute.
- 23 **Euskara.** Zabalik dago euskara ikasteko epea.
- 24 **Kultura.** AtauriArten arteaz, despoblazioari aurre.
- 25 **Kultura.** Emakumeei buruzko gogoeta Artgia gunean.
- 26 **Gure bazterrak.** Salburua.
- 28 **Jolasa eta irakurleen txokoa.**
- 30 **Agenda.**

Bultzatzaileak



berria goiena

Argitaratzailea

Arabako Alea Komunikazio Taldea

Zuzendaria

Aritz Martinez de Luna

Erredakzioa

Anakoz Amenabar

Mirian Biteri

Esti Lanao

Estibx Ugarte

Juanma Gallego

Komertziala

Erlantz Anda

Inprenta

GERTU Inprimategia

Tirada: 2.100 ale

EGOITZA NAGUSIA

Eskola kalea 10, 7. bulegoa

01001 Gasteiz (ARABA)

Tel.: 945 71 60 09

info@alea.eus

PUBLIZITATEA

publizitatea@alea.eus

Tel.: 695 63 28 62

HARPIDETZA

harpidetza@alea.eus

Tel.: 945 71 60 09

Lege Gordailua: VI-32-2015

ISSN: 2386-8961

ALEA aldizkaria harpidetza bidez banatzen da, urteko 55 euroan.

Informazio gehiago: www.alea.eus/harpidetzak

ALEAK ez ditu bere gain hartzen IRITZIA sailean edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Asteko kolaboratzaileak: Txema Ramirez de la Piscina eta Irati Iciar.

Laguntzaileak



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala



Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Koba argituko dute, katea eten ez dadin

Mairuelegorretako leize-zuloan ospatuko da igandean Euskal Jaia. 1963an antolatu zuen lehen aldiz Manuel Iradier txangolari taldeak, frankismoa bete-betean, eta 1990ean berreskuratu zuten zigoitiarrek; Araban eta Euskal Herri osoan euskararen, euskal kulturaren eta auzolanaren sinboloa bilakatu da.

Testua: **Estitxu Ugarte Lopez de Arkaute.**

gandean, 11:00etan, hasiko da Mairuelegorretako leize-zuloan Euskal Jaia. Hirurogei urte beteko dira aurki lehendabizikoa antolatu zutenetik Manuel Iradier txangolari elkarteko hainbat kidek. "Jatorrizko ideia Kopi Lopez de Elorriagarena izan zen, *Amaya* ezpata-dantza Mairuelegorretako koban dantzatzeko ideia izan zuen eta hortik abiatu zen dena", azaldu du Pepe Elejaldek *Iluntasunetik argitasunera* dokumentalean. Hortik aurrera, Manuel Iradier espeleologia taldeko lagunek ekin zioten lanari, eta 1963. urteko uztailean egin zuten lehen Euskal Jaia. Ordutik bitan soilik hautsi da katea: 1967tik 1970era gobernari frankistek debekatu zuten jaialdia, eta 1982an, berriz, Manuel Iradier elkarteak jaia antolatzeari utzi zion.

Alta, 1990. urtean, Zigoitia inguruko lagunak lanean hasi ziren jaia berreskuratzeko eta gaurdaino formatua bere horretan mantendu dute. Zigoitiko Oketa elkarteak izan zen lekukoa hartu zuena, harik eta Zigoitia Euskaraz ekimena lan horretaz arduratu zen arte. Urteen poderioz, aldarrikapen desberdinen eta euskararen eta euskal kulturaren berpizkundearen sinbolo bilakatu da jaia, eta baita auzolanaren erakusgarri garrantzitsua ere.

Hala aitortu dute Zigoitia Euskaraz taldeko kideek, hain zuzen dozenaka herritarren borondatezko lanari esker ateratzen delako aurrera jaialdia. Gaur egun, gainera, ekintza desberdinez osaturiko bi asteburuetako egitaraua antolatzen dute.



Zigoitiko herritarrez osaturiko lantaldea da, eta Udalak ere lagundu egiten du. Lana ez da lantalde finko batera mugatzen: "Herriaren erantzuna nahiko handia izaten da jarduera guztietan. Lantalde nagusiak gidaturiko zeozer da Zigoitia Euskaraz, baina herri osoak erantzuten du". Hala ere, gazteen presentzia indartzea beharrezkoa ikusten dute.

Guardia Zibilaren baimen eske

Bide luze honetan –frankismoaren garaian eta demokrazian–, oztopo ugari gainditu behar izan dituzte Mairuelegorretako Euskal Jaiaren antolatzaileek, kasu batzuetan politikoak eta beste batzuetan administratiboak eta burokratikoak. Hala jasota dago Mikel Ezkerro zuzendari gasteiztarak 2016. urtean grabatutako *Iluntasunetik argitasunera* dokumentalean.

Lehenengo jaialdia antolatzeko bizi izan zituzten komeriak azaldu dituzte lan horretan sortzaileetako batzuek: Isidro Saenz de Urturik, Pepe Elejaldek, Luis Mari Iriartek, Kopi Lopez de Elorriagak eta Iñaki Agirrek. Besteak beste, gogoratzen dute 1963ko Euskal Jaia antolatzeko orduan Espainiako Gobernu Militarrea, Informazio eta Turismo idazkaritzara eta Legutioko Guardia Zibilaren kuartelera baimen eske joan behar izan zutela, eta hauei guztiei sinestarazi ekitaldiak kutsu politikorik ez zuela izango, "eta ez genituela Guardia Zibilak irainduko".

Gorbeia Mairuelegorretako leize-zuloan euskal jaia egingo dute igande honetan. ZIGOITIA EUSKARAZ TALDEA.





Beste arazo logistiko batzuei ere aurre egin zieten; jaiaren finantzaketa bermatu, leize-zuloa argiztatzeko modua aurkitu eta *Amaya* ezpata-dantza zein Luis Aranburu konpositoreak sortutako *Hartzaren Ehizaren* musika dantzatzen ikasi: "Bi aste lehenago hasi ginen entseatzen; Manuel Iradier taldeko espeleologoei erakutsi behar izan genien dantza, Txirimbil taldeko Jose Antonio Zabalzaren laguntzarekin".

Folklore baina gehiago

Euskal Jaiaren bigarren fasea 1970. urtean etorri zen, Manuel Iradier txangolari elkarteko gazteek ekitaldi folkloriko hutsetik jaialdi aldarrikatzaileago bat egin nahi zutelako. Dozenaka oztopo ere aurkitu zituzten bidean; abestu behar zituzten kanta guztiek Informazio eta Turismoko ordezkariaren zentsura pasa behar zuten, eta guardia zibilen presentzia eta jazarpena nabarmena zen egun horietan Mairuelegorretako inguruetan. Baina, Franco diktadorearen heriotzarekin batera, Euskal Jai berpiztu



Mairuelegorretako Euskal Jaia 1963. urtean ospatu zen lehenbiziko aldiz; garai horretako irudiak dira hauek. JASONE

LOPEZ DE ARKAUTE

zen. 1976 urtean, adibidez, Mairuelegorreta inguruan Euskal Herri osotik joandako 20.000 bat lagun bildu ziren. Joseba Azkarragak gogoratzen duenez, bigarren etapako urteetan Muruatik kobarainoko bide osoan esku-orriak, pegatinak eta pankartak ikusten ziren, euskal preso politikoen askatasuna eta beste aldarrikapen politiko batzuk agertzen zituztenak.

Oraingo ekitaldiak ere oztopoak izan ditu, batez ere leize-zuloaren edukierari eta bestelako zenbait traba legal dagokienez. 2009an inflexio puntu bat egon zen, gainera, ekitaldia barruan egiteko debekuaren txostena idatzi baitzuen Eusko Jaurlaritzak, eta auzian jarri zuen ekitaldia. Horren ondorioz, 2011ko jaialdia kobatik kanpo egin behar izan zuten, baina hurrengo urtean berriro barruko espazioa berreskuratu zuten. Formatua gehiegi aldatu ez bada ere, egun Mairuelegorretako Euskal Jaiak euskara du ardatz nagusia: "Euskara kobatik plazara eramatea da garrantzitsuena, etxera eramatea, hori da Zigoita Euskaraz ekimenaren helburua".

Programa zabala Zigoitia Euskarazen

Asteburu honetan ere Zigoitia Euskarazeko ekimenek jarraipena izango dute. Hala, irailaren 7an, gazta egiteko erakustaldia izango da, Gopegiko Gurutze plazan, 19:00etan. Xabier Aizpeolea Buruaga arditegiaren arduradunaren eskutik izango da ekimena. Ordu erdi beranduago, 19:30ean, Trebiñu, Kuartango, Iturrieta eta Aretxaga sagardotegietako sagardoak eta Zigoitiko gaztak dastatzeko aukera izango da, eta Tio Teronen Semeak taldeak *Festamentua* ikuskizuna eskainiko du, 20:30ean.

Igandean, berriz, irailaren 8an alegia, Euskal Jaia Mairuelegorretako kobazulora barneratuko da. Bertan, goizeko hamaiketatik aurrera, txalaparta emanaldia, Iñaki Viñaspre eta Paula Amilburu bertsolariak eta Olatz Salvador abeslariaren kontzertua antolatu dituzte. Gainera,



Trikizio taldeak alaituko du igandeko erromeria. TRIKIZIO

ohikoa denez, Jare dantza taldeak *Amaya* ezpata-dantza eskainiko du, eta Oketa-Alai dantza taldearen emanaldia ere izango da. Antolakuntzatik kobazulora sartzeko linternak edo frontalak eramatea gogorarazi dute.

Baina festa ez da jaialdiarekin amaituko, izan

ere arratsalde partean Ondategin jarraituko du. Bertan, 15:00etatik aurrera, Bengolarrako pilotalekuan herri bazkaria, dantza-plaza eta Trikizio taldearen eskutik erromeria izango dira. Herri bazkarirako txartelak Bengolarrako tabernan eros daitezke.

ALEGRIA-DULANTZIKO JAIK-2019



**Irailaren
13tik 22ra**

Ez galdu!!!

Ostirala 13 | 00:00etan | Herriko enparantzan

KONTZERTUA

GOVERNORS + HESIAN

GAUJAIK | Herriko Enparantzan

Larunbata 14 - 23:30ean - LISKER


Ostirala 20 - 00:30etan - KRESALA

Larunbata 21 - 23:30ean - AKERBELTZ

DANTZALDIA

Igandea 22 - 19:30ean - JOSELU ANAIK

Protagonista



Etapa politiko berri bati ekingo dio Gorka Knörrek Madrilen. LLENGUA NACIONAL

"Eskubideak jokoan dauden bakoitzean altxatuko gara"

GORKA KNÖRR GENERALITATEKO ORDEZKARIA MADRILEN

Madrilen du jokaleku berria Gorka Knörrek, Generalitatearen ordezkaritza, Espainiako Gobernuak 155. artikulua aplikatuta kargugabetu zuen Ferran Mascarellen lekuan. Bi gobernuen arteko harremana hautsirik dagoela dirudienean, elkarrizketari eusteko mezu irmoa agertu du Eusko Alkartasunako eledun ohiak. Testua: **Anakoz Amenabar.**

Euskal Herritik Kataluniara egin zuen jauzi duela urte batzuk, eta Madrilen ekingo dio orain etapa berri bati Generalitateko ordezkari modura Gorka Knörrek (Tarragona, Herrialde Katalanak, 1950). Bi gobernuen arteko mezu politikoen zubi-lana egin eta Espainiako hiriburuan kultura jarduerak kudeatzeko lana izango du lehentasun aurrerantzean. Erronkari gogotsu heldu dio, hurrengo hilabeteetako hainbat gertarik beharra "are zailagoa" jarriko diotela sumatzen duen arren.

Kargu berria eskutan, nola irudikatzen duzu ikasturte politiko berria?

Ez dago esan beharrik ikasturte politiko konplikatu baten aurrean gaudela, batez ere hasiera hau oso baldintzatuta dagoelako Espainiako Gorenetik etorriko den sententziarekin. Denok dugu buruan hori, eta ziurrenik baldintzatu egingo du hurrengo hilabeteetan gertatuko dena. Bestetik, badakigu Espainia aldean gero eta zailagoa gertatzen ari dela gobernua osatzea eta horrek ere eragina izango du, ez bakarrik Katalunian, baina bereziki han.

Kargua eskaini zizutenean zalantzarik izan zenuen?

Nire bizitzan beti hartu izan ditut arriskua duten erabakiak. Gogoan dut lehenengo aldiz Jaurlaritzan sartu nintzenean, orain dela 34 urte, Garai-

koetxearen eskutik, sarerik gabe salto egin nuela eremu pribatutik eremu publikora. Eta bai, esan daiteke konfort eremutik atera naizela orain, baina erantzukizun bat dut pertsonalki eta politikoki Kataluniako prozesuarekin eta horrekin zerikusi zuzena duten beste prozesu batzuekin, tartean Euskal Herrikoarekin. Beraz, ez dut dudarik izan, badakit bizitza pixka bat konplikatu egingo dela, baina egin behar nuela uste dut. Bada zoriondu beharrean dolumina agertu didan bat baino gehiago, halere, kar kar...

Zein lehentasun dauka Kataluniako ordezkaritza Madrilen?

Gauza asko egiten dira bertan. Batetik, badira kulturarekin zerikusi zuzena duten ekitaldiak; katalan ikastaroak daude, liburutegi on bat dago, era guztietako ziklo eta erakusketak antolatzen dira. Eta, beste alde batetik, arlo politikoa dugu; harremanei dagokiena, alegia, gobernu batetik bestera doazen mezuak eta era guztietako gestioak, eta era guztietako erakundeekin harremanak zaindu eta indartzea. Uste dut esfortzu handi bat egin behar dela azken honetan.

Espainiako Gobernua eta Generalitatearen arteko harremana nola dagoen ikusita, nondik abiatuko duzu lana? Elkarrizketarik bada?

Elkarrizketak ustez hautsita daudela dirudien arren, edo azalez hori dirudien arren, beti daude elkarrizketak, gerra eta gatazka guztietan daude

elkarrizketak, eta egongo dira. Gogoan dut etapa ilun batean, ETAk su-etena hautsi zuenean, Lizarrako garaietan, Europako parlamentuan nintzela, eta han bazeuden gure kontra era basati batean aritu ziren hainbat agintari, baina beti egon ziren elkarrizketaren bidea defendatu zutenak ere, modu publikoan eta pribatuan beste askotan. Hori zaindu behar dugu, formak ez ditugu galdu behar. Ez dadila izan gure aldetik behintzat.

Mahai gainean jarri ditu Pedro Sanchezek gobernua osatzeko neurriak, eta, horien artean, uko egiten dio Katalunian erreferenduma egiteari.

Espainiako agintariak dituzten arazoen aurrean ezikusiarena egiten saiatuko dira, eta argi esan behar dugu ez dagoela Europa osoan, eta behar-bada mundu osoan, Katalunian gertatzen dena bezalako fenomenorik. Zifrak azter ditzagun. Bi milioi laguneko kolektibo bati buruz ari gara, Alemanian Baden-Württemberg moduko estatu federal batean lau milioi lagunek urtez urte eta hauteskunderik hauteskunde independentziaren alde ariko balira bezala; segur aski, momentu horretara heldu baino lehenago Alemanian bertan norbaitek pentsatuko zuen arazo horren aurrean zerbait egin behar zela. Espainian, berriz, ez; ezikusiarena egiten ari dira, eta era guztietako tranpak egiten.

Diada ospatuko da datorren astean, hilaren 11n, 'Tornarem' leloarekin...

Gure eskubide demokratikoen defentsan ezin dugu besterik esan. Argi eta garbi esan behar dugu eskubideak jokoan dauden bakoitzean berriro ere borrokatuko garela, berriro kalera aterako garela, eta berriro ere altxatuko garela injustiziaren kontra. Orain 40 urte altxatu ginen bezala gaur ere hori egin behar dugu, eta ez dugu zalantzarik. Guk irmo defendatu behar ditugu eskubide guztiak, pertsonal eta kolektiboak. Eta hori da, une honetan, gehien kezkatzen gaituena; momentu honetan, era baketsu eta demokratikoan aritu diren buruzagi politikoak kartzelan ditugu, buruzagi sozialak kartzelan, liderrak erbestean, kantari bat edo beste erbestean, manifestazio batean parte hartu duen pertsona bat Belgikan exiliatua, 700 alkate baino gehiago auzipetuta... horrek kezkatzen gaitu gehien orain.

Kataluniako prozesuaren bide-orrian zein da hurrengo pauso garrantzitsua?

Orain, batez ere, Diada dugu aurrean. Kalean erakutsi behar dugu gure asmoa zein den, eta hortik aurrera independentziaren alde eta



Gorka Knörr, Bartzelonan. IÑAKI LARRAÑAGA

"EZIN DUGU BURUA MAKURTU, ARE GUTXIAGO ERABAKIA KUTSATUTAKO JUSTIZIA BATETIK DATORRENEAN"

"BURUZAGI POLITIKOAK KARTZELAN DITUGU, ABESLARIAK ERBESTEAN, 700 ALKATE AUZIPETUTA..."

"GERRA ETA GATAZKA GUZTIEN ERDIAN DAUDE ELKARRIZKETAK, ETA EGONGO DIRA"

burujabetasunaren alde dauden guztiak, ahalik eta neurririk handienez, beraien estrategiak adostea. Badakigu ez dela erraza, baina gure erantzukizuna da hori lortzea.

Gorenaren sententziak nola markatu ditzake hurrengo hilabeteak?

Ikusi beharko da, baina zenbait sektoretatik erantzun bateratu bat eskatzen ari dira, erantzun

irimo bat kalean zein erakundeetan. Pentsatu beharko dugu nola egin; ezin dugu burua makurtu besterik gabe, eta are gutxiago kutsatutako justizia batetik datorrenean.

Bien bitartean, Espainiako Gobernua osatu gabe.

Eta uste dut hauteskundeetara goazela. Esango nuke gauzak gertatu diren bezala, eta ikusita lagun hurkoa –Podemos– nola tratatu duten, ikusten dut alderdi sozialistak erabakia hartua duela hauteskundeetara joateko.

Nola eragiten dio Kataluniari horrek?

Egunerokoan uste dut denoi eragiten digula, eta orain ikusten ari gara, esate baterako, erkidego guztietan eragin finantziero bat izan dela, denak konturatu dira zer suposatzen duen gobernua ez izateak; Euskal Herrian gutxiago kontzertu eta hitzarmen ekonomikoei esker, baina besteetan eragin zuzena du, asko luzatzen ari baita diruak jasotzeko epea, eta horrek eragin zuzena du programetan, diru-laguntzetan... Azkenean jendeak sufritu egiten du.

Beste alde batetik, Carles Puigdemont, Toni Comin eta Oriol Junqueras eurodiputatu izateko aukerarik gabe daude, Espainiako Hauteskunde Batzordearen akta ez dutelako.

Arbitrariotasun hutsa da. Legez kontrako erabakia dela uste dut. Ni 1999ko ekainaren 13an hautatu ninduten Europako Parlamenturako, eta handik bi egunera nire parlamentari-txartela nuen Bruselan, nire paper guztiak, eta negoziazioak hasita genituen talde batean sartzeko. Hilabete beranduago ekarri gintuzten Madrilera Konstituzioaren zina egitera. Lisboako tratatuaren arabera, Junqueras, Comin eta Puigdemont Europako Batasuneko hiritar guztien izenean ari diren europarlamentarioak dira, eta ez dute zertan inongo Konstituziorik zin egin. Bestelakoa uste dutenak arbitrariotasun baten alde ari dira.

Euskal Herrira begira, nolako giro politikoa sumatzen duzu?

EAEko hauteskundeetan argi geratu da EAJ indartsu dagoela, eta Nafarroan ematen du apur bat atzera egin duela abertzaletasunak, baina batez ere Espainiako eskuineko indarrak batu direlako izan da. Ni itxaropentsu nago; abertzaleen arteko diferentziak, baita pertsonalak ere, desagertzen direnean momentua izango da abertzaleen artean aurrera begira jartzeko eta adostasunak hedatzeko, posible bada burujabetzaren gailurra egiteko. ■■■



ERAKUSKETAK

Juan Carlos Meana
NOS[YO]OTROS
> 2019.09.15

Javier Hernández
Landazabal

**Galduaz eta
berreskuratuz**
> 2019.09.15

**Oroi. Queda mucho
pasado por delante**
Artium Bilduma
>2020.01.05

JARDUERAK

HITZALDIAK

Javier Hernández Landazabal &
Daniel Castillejo
09.11 19:00
Juan Carlos Meana &
Enrique Martínez Goikoetxea
09.12 19:00

ARTISTAK GUREAN

Elena Aitzkoa
25.09 19:00

KONTZERTUAK-PROGRAMA

IGANDEAK

09.08 - Montauk
09.15 - Birkir
09.22 - Sara Zozaya
09.29 - Duluth
20:00 Plaza aretoan. Doako jarduera

DanzAlava 2019

Jeremy Wade | www.danzalava.com
09.01 20:00

CinemArtium

Qui vive. Marianne Tardieu
09.24 19:00

Argibide gehiago:

www.artium.org

Udaminez



TXEMA RAMIREZ DE LA PISCINA

KAZETARITZAKO IKERTZAILEA

Uda osteko lehen zutabea ezin gogoeta sakonik eskatu, are gutxiago gai deserosoak ukitu. "Ez iezaguzu buelta gogorrago egin, Txema", eskatu dit aldameneko lagunak. Nire inguruan begi bistakoak dira udaren osteko ohiko markak: larru azalak ilunago, garagardoaren aparraren arrastoa oraindik ere ezpain ertzetan ikusgai, mugikorretako memoriak argazkiez gainezka...

Aspaldiko lagun bat solasaldira batu zaigu. Isilean etorri da. Balirudike baimen eske elkartu dela taldera. Ohiko galdera egin diogu: "Ongi joan al da uda?". Ez du berehalakoan erantzun. Arnasa hartu eta deblauki bota digu aurpegira: "Ama hiltzorian daukat; ospitaletik nator orain. Medikuek diote ez dagoela zer eginik". Han eman du azken gaua, baita azken hamazazpiak ere. Nekea, mina eta sufrikarioaren arrastoak nabariak dira bere aurpegian. Amak 86 urte ditu eta aspaldi alargundu zen. Gure laguna alaba bakarra da, eta berari tokatu zaio zama ia guztia kudeatzea. Udaren *b aldea* erakutsi digu.

Udaran bakardadearen sentsazioa sakondu egiten da. Berotasuna ere jasangaitzagoa da. Ongi asko dakite hori bakarrik bizi diren adineko pertsonen. Txikikeriak handitu eta mamuak erraldoi bihurtzen dira. Telebistan entretenimendu bila doazenek ere zaila dute ganorazko zerbait topatzea: batean auskalo noizko eta nongo *dantza suelta* txapelketaren enegarren errepikapena, bestean kloroz betetako sasi-erreportaje arin eta ergelak. Edo are okerrago, Mediterraneoko *drama* esaten dioten gatazka horren azken kapitulu zatikatu eta ulertezina.

Batzuei zoriontasunaren inguruan osatu den industria eta parafernalia guztiak min ematen digu. Beste batzuk, berriz, askeago egiten omen ditu; une batez bederen. Laster barru esperientzia kitzikagarriagoen bila hasiko dira.

Aldameneko lagunak amaitu du zutabea irakurtzen: "Ai! Ramirez, Ramirez; zu beti udaminez". ■■■

**BATZUEI
ZORIONTASUNAREN
INGURUKO INDUSTRIA
ETA PARAERNALIAK
MIN EMATEN DIGU**

Maitasunaren zikloa



IRATI ICIAR

UEU-KO LANGILEA

I raila, ikasturte hasiera (aspaldi bada ere ikasle garaiak atzean utzi genituela), beste ziklo baten hasiera. Urtea antolatzeko ikasle garaiaren zikloa jarraitzeak badu puntu residual bat, niri behintzat, apur bat traba ere egiten didana.

Azken finean, aitortu dezagun, gure bizitza opor egunen arabera antolatzen dugu, ez eguzki edo ilargi zikloen arabera, ez uztaren arabera, ez ikasle jardunaren arabera: zenbat opor egun ditut, zenbat falta dira iristeko, opor egunen aurreko giro zorua, osteko nagia...

Zikloak markatu behar ditugu, noski, egunerokotasunari erritmoa emateko nolabait. Neu lehena, aste osoan egunero zer egingo duen dakiten *control-freak* horietakoa naiz.

Agendak eguneratzen nagoen honetan, atentzioa deitu dit irakurtzeak Gorbeia aldea (autoentzat) itxi egingo dela oreinen marrualdiagatik. Hara! Beste ziklo baten hasiera hau ere, maitasunez hasten dutena, gainera (bai, entzun zaitut irakurle, zergatik esan maitasuna sexua esan nahi denean). Naturak markatutako zikloak geldiezinak, atzeratuezinak, besterenezinak dira, guri humanooi, dena *antropodoitzea* gustuko dugunoi, egoki suertatu ala ez.

Agian geuk ere ziklo naturalagoak beharko genituzke urteari erritmoa emateko? Orain dena naturalago –bio, eko, "jator"– nahi dugunez, gure egutegia ere bioerritmoetara egokitu beharko genuke?

Oporren ondoren egunerokotasuna berrabiarazteko gogoeta hauetan nagoela, tentatuta nago neure zikloa ere maitasunaren arabera markatzera, ea marketing apur batekin gusturago jaikitzen naizen goizean iratzargailuak jotzen duenean. Maitasunaren ziklo hasiera on izan dezazula zeuk ere, irakurle. ■■■

**AGIAN GEUK ERE ZIKLO
NATURALAGOAK
BEHARKO GENITUZKE
URTEARI ERRITMOA
EMATEKO?**

SAREAN

@ESTITXUUGARTE

#Oiloak

A buztuaren 18an, hainbat kaputxadunek Errekaleor auzoko bizilagunek kudeatzen duten oilategiaren kontrako ekintza egin zuten. Bertan zeuden 40 oiloak aske uzteko ekintza Animalien Askapenerako Fronteak (FLA) aldarrikatu zuen. Talde animalistak eta Errekaleorreko bizilagunek gertakariaren harira kaleratu zituzten agirien inguruan polemika zabaldu zen. Egun gutxiaren buruan, beste emakume bat Tangerreko (Maroko) merkatu batean karioletan zeuden oiloak ere askatzen saiatu zen; eta Gironan, berriz, oiloak askatzeko beste ekimen bat egin zuten antiespezistek. ■



KALLA KAROLA
@elurnne

Oso askea ez da espazio bat animaliak entzerratuak badituzte. Ez gara askeak izango beste izaki guztiak aske izan arte.



J.
@junkalat

Ez dago bigarren mailako borrokarik, bizi ez duzun zapalkuntza baizik.



JOSU GOIKO
@josu_goiko

Errekaleorreko oiloak Route 66an ikusi dituzte.



**ESPE
ITARGIPETIK**
@itargipetik

... eta egoerak txarrera egingo dauela emoten dau. Ergelkeriak inbaditu egin gaitu edo...



**RIKARDO
ARREGI**
@rikarregi

Jendea antzarak ferratzera bidali beharrean, oiloak askatzera bidali dezakegu hemendik aurrera.

M Mencia
Optika

150 urte
zure ondoan

www.menciaoptika.eus

 IRUDITAN



Arnasa txikia euskaraz, haurrei begira

ETB3 katean denboradi honetan eskainiko duten *3 Ene Kantak* saioaren aurkezpena egin dute astelehenean, han bildutako haur eta gurasoen gozamenerako. Festival jaialdi barruan dauden ekimenetako bat da hau, erdal ekoizpenen artean irla bakarrenetako bat, hain zuzen. Telebista publikoak aurreratu duenez, abesti, dantza eta esketx berriak izango dira denboraldi berrian, eta baita Euskal Herri osoko ikastetxeek grabatutako bideoak ere. Gainerakoan, Festival jaialdiak ohiko itxura hartu du aurtengoan ere, alfonbra laranja gorabehera eta Twitter edota Instagrameko kontu ofizialetan aktoreen edertasunari erreparatuz. **Argazkia: Festival.** ■



**Bidali zure
argazkiak testu
labur batekin:
erredakzioa@alea.
eus**



Laudioko hiltegia itxita dago abuztuaren hasieratik, eta ez dago argi noiz irekiko duten. ALPHABET

Hiltegia itxi dute, behin-behinean

Nerbioi ibaira egindako isuriak direla eta, herriko hiltegia ixtea agindu du Laudioko Udalak, baina erabakiaren kontra azaldu dira eskualdeko abeltzainak: azpiegitura berriro martxan jartzeko eskatu dute.

JUANMA GALLEGO LAUDIO

Abuztuaren hasieratik itxita dago Laudioko hiltegia, eta azpiegituraren etorkizuna zein izango den argitu gabe dago oraindik. Udalaren erabakia izan da hiltegiaren behin-behineko itxiera, eta erakundeak bi arrazoi eman ditu horretarako. Batetik, Nerbioi ibaira izandako odol isuriengatik URA agentziak errekerimendu bat helarazi diola; bestetik, Arabako Fiskaltzak ikerketa bat agindu

duela, askotan errepikatu diren isuri horien atzean ingurumen delitua ote dagoen argitzeko.

Abereak hil eta gero haien odola ibaira isurtzen delako salaketa ugari egin dituzte ekologistek. Uztailean gertatu ziren azken isuriak, eta hainbat herritarrek ibaiaren egoeraren berri ematen zuten, sare sozialetan argazkiak eta mezuak zabalduz.

Uztailaren amaieran Ander Añibarro alkateak 140.000 euroko

diru partida iragarri zuen hiltegian koagulazio sistema bat jartzeko, baina azkenean URAREN eskaera eta Fiskaltzaren ikerketa direla eta, zerbitzua bertan behera uzteko agindua eman du EAJK eta PSEK osatzen duten udal gobernuak. Ez dute argitu zenbat denboraz egongo den itxita, baina Añibarro alkateak esan du "behar den denboraz" egingo dutela.

Erabiltzaileen kexuak

"Aldebakarreko erabaki" horren kontra azaldu da EH Bildu. Diotenez, neurri horrek "ondorio larriak" izango ditu hiltegiaren egiten duten hamaika langilerengan eta euren familiengan, eta baita hiltegi horrekin lan egiten duten 350 baserritarri. Abereak hiltzeko Mirandara (Burgos) edota Zestoara (Gipuzkoa) jo behar ko dutela dio alderdi abertzaleak.

Bestetik, beldur dira erabakia ez ote den izango zerbitzu publiko hori behin betiko ixteko edota

horren kudeaketaren pribatizazioa eragiteko. Udal gobernua, berriz, neurri "tenporala" dela berretsi du, eta hiltegia itxi ezean Udala isun handiak izateko zorian dagoela argudiatu du. Alkatetzan egon den zortzi urteetan EH Bilduk arazoari irtenbidea emateko lanik ez duela egin leporatu diote abuztuaren amaieran egin duten azken udalbatzan.

Joan den abuztuaren 26ko Udal Osoko Bilkuraren gai nagusia izan da, hain zuzen, hiltegiarena. Bertan EH Bilduk mozioa aurkeztu du, besteak beste, gaia jorrazteko lan-mahai bat eskatuz. Koalizio abertzalearen aburuz, URAK soilik isuriak etetea eskatu du, eta ez hiltegiaren itxiera. Hortaz, "borondatea egonez gero", sei astean hiltegia berriro martxan egoteko moduan izan daitekeela dio koalizio abertzaleak. Gainerako taldeek aurkeztutako mozio alternatiboa onartu da azkenean, EH Bilduren abstentzioarekin.

Udalbatzara ere bertaratu dira eskualdeko hainbat abeltzain, egoeraz kezkatuta. Audio, Amurrio, Aiara, Orozko eta Zeberioiko abeltzain elkarteek ere agiri batean hiltegia irekitzeko eskatu dute. Herriko jaietako baserritarren egunean ere, kuadrillako abeltzainek auto eta traktore karabana egin dute herriko erdigunean zehar, *Ibaia bizirik, hiltegia zabalik* lelopean.

Gastuak bidaietan

Aiaraldea.eus hedabideari azaldu dio bere kezka Iñaki Urkixo baserritarrek: "Behietan ari direnak normalean jarduera bakarreko baserriak dira, eta orain arriskuan daude, egoera zenbat eta gehiago luzatu ahala. Hilero-hilero joango dira baserriak ixten, oso base-
rri gutxik jasan ahal dutelako astean behin, bi astean behin edo



Uztailean salatu zuten azken isuria. GADEN

hilabetean behin Zestoarako bidaia bat egitea". Zigor Gorostiaga EHNEko kidearen ustez, "egin behar den lehen gauza hiltegia zabaltzea da. Behin zabalik dagoela, jesarriko gara edozein gauzari buruz hitz egiteko, bai ekonomiarri buruz, egiteko moduari buruz edo kudeaketari buruz".

Gauzak horrela, Udalak dio bi txostenen emaitzen zain dagoela, *Aiaraldea.eus*-ek jaso duenez.

UDALAK DIO IRTENBIDE "IRAUNKORRAK ETA ARDURATSUAK" BILATU NAHI DITUELA, ETA EZ "ADABAKIAK"

Batetik, ingeniari-tza enpresa bat txosten bat lantzen ari da isurketen inguruan zein aldaketa egin behar diren argitzeko. Bestetik, Osasun Sailak ere inbertsio batzuk eskatu behar omen ditu. Udal estrategiaren ardura duen Ander Larrinaga zinegotziaren hitzetan, behin bi txosten horiek eskutan izanda erabakiko dute zer egin. Hortaz, egoera bideratzeko denbora eskatu du zinegotziak.

Larrinagaren aburuz, odola bilteza ez da aterabide egokia. "Odol horiek Burgosera eramane behar dira tratatzeko, hondakin hauek ezin direlako edonon tratatu", azaldu du. Horrek kostu garrantzitsua duela gaineratu du. Aterabide hori "adabakitzat" jo du. "Hori egin dezakegu, baina hartu behar diren erabakiak iraunkorrak eta arduratsuak izan behar dira. Audioko herriar guztientzat".

ANTZERKI ESKOLA

- + HASTAPENA
- + GAZTEAK
- + TXIKIAK
- + ANTZERKI MUSIKALA
- + ANTZEZLEEN FORMAKUNTZA ...

www.escueladeteatro-tae.com
945-284542 / 945-285645
Errege-Erregina Katolikoak, 4
f @EscuelaTeatroVitoria

"Trenbidea lurperatzeak Gasteiz osoari eragiten dio"

IKER SAN MIGUEL LIZARRALDE GASTEIZ BATUKO KIDEA

Hilabete darama Gasteiz Batu herri plataformak Espainiako Gobernuak trena lurperatzeko aurkeztutako proiektuaren kontra alegazioak batzen.

MIRIAN BITERI GASTEIZ

Trenaren egungo lurperatze proiektuak Gasteizko Salburua, Arkaiate, Larrein, Zabalgana, Ariznabarra edo San Martin bezalako auzoak alde batera uzten dituela uste du Gasteiz Batu herri plataformak, eta horren kontrako alegazioak biltzen ari da. Astelehen, irailaren 9an, amaitzen da Espainiako Gobernu Ordezkaritzan aurkezteko epea.

Zergatik jarri duzue martxan proiektuaren kontrako kanpaina?

Uztailaren hasieran hasi zen guztia, egitasmoaren inguruko informazioa zabaltzen hasi zenean. Herriar talde batek batzarrak egiteari ekin zion eta auzo elkar-terera ere joan ginen horren gainean zerbait ote zekiten galdetzen. Antzera zeudela ikusi genuen.

Zabalganeko jaietan bilkura orokorragoa deitzea adostu zenuten.

Bai, geneuzkan zalantzak argitze-ko. Uztailaren amaieran egin genuen batzarra; ordura arte geneukan informazioa partekatu eta

mugitzen hasi ginen. Zabalgana Batuz elkarteak alegazio teknikoa aurkeztuko zuela iragarri zuen. Auzokideok, beste alde batetik, alegazio herrikoiagoa prestatu genuen, ahalik eta jende gehien-nera heltzeko. Proiektuan ikusitako hutsuneak zalantzan jartzen ditugu bertan.

Zer gabezia topatu dituzue?

2010. urtean aurkeztutako proiektuak 6,8 kilometro lurpean izan behar zituen, eta oraingoak lurperatutako zatiaren luzera nabarmen murriztu du (3,8 km), eta ondorioz, Salburua, Arkaiate, Larrein eta Zabalganeko tarte handi batean trena aire zabalean egongo da, horrek dakarrenarekin. Besteak beste, trenbide kopurua handituko denez, azalean doan bidaiari eta zama trenen kopurua biderkatu egingo da, eta horrek suposatuko duen zarata eta bibrazioen handitzearekin kezkatuta gaude. Gainera, zarata arazoa murrizteko, lekuaren arabera, sei metro altuerarainoko panelak ezartzea proposatzen dute proiektuan, horrek dakarren isolamendu eta inpaktu bisualarekin.

Etxebizitzetatik ez ezik, ikastetxetatik ere oso gertu pasatuko dira trenak...

Bai. Zabalganeko eskola ondotik. Eta Salburuan orain eraikitzen ari diren Errekabarri ikastetxetik oso urrun ez dela egongo uste dugu, baina, kontua da proiektua aurtengo ekainekoa baldin bada ere, eskola hori ez dela egitasmoan agertzen. Kasu horretan ezjakintasuna da nagusi.

Gaztela Etorbidearen inguruko auzokideak ere arduratuta agertu dira.

Mugitzen hasi dira, bai. Asteon bilera informatiboa egin dute. Proiektuak aurreikusitako tunelekin eta lurperatzeak izan ditza- keten afekzioekin daude, besteak beste, kezkatuta: bibrazioak,



Abuztuan zehar bilera informatiboak eta sinadura bilketak egin dituzte. ZABALGANA BATUZ.

kutsadura... Informatzeaz gain, alegazioak ere prestatzen dabilta. **Abuztu osoa eman duzue lanean...**

Hala da. Hilabete osoa eman dugu gasteiztarrek informatzen, proiektuaren inguruko informazio falta itzela dagoelako: kaltetutako auzoetako atarietan kartelak jarri ditugu eta auzo batzar informatiboak ere deitu ditugu jendeak dituen zalantzei, ahal den neurrian, erantzuteko. Gasteizko jaietan ere hainbat tokitan izan ginen oihartzun gehiago lortzeko. Guzti honen asmoa izan da ahalik eta alegazio gehien batzea.

Eta orain arte zenbat bildu dituzue?

Astelehenera arte 4.600 genituen. Ez dago txarto kontuan izanda hau guztia hilabete bateko kontua izan dela, eta abuztuan, gainera. Hilabete osoan ez da inor egon eta oso zaila izan da; baina azken egunotan asko igo da kopurua. Horri gehitu behar zaio gaiaren inguruan dagoen isiltasuna; inork ez du ezer esaten. Udalera joan gara eta alegazio epea amaitu arte ez duela ezer esango erantzun digu. Horrelako proiektu estrategiko batean herritarrak gauden moduan izatea nahiko harrigarria eta larria da.

Talde politikoekin kontakturik izan al duzue?

Ez. Hasieratik alderdi politikoe-tatik aparte mantendu nahi izan dugu; gure oihartzuna zabaldu nahi badute, eskertuta egongo gara, edozein gasteiztarrengana heldu nahi dugulako. Anitzak gara. Proiektuak gabezi asko ditu eta benetan gura duguna da benetako proiektu serio bat aurkeztu dezatela; edo, gutxienez, hutsune horiek zuzendu ditzatela, kanpo utzi gaituztenei ere entzutea eta denon artean ganorazko zerbait adostea.

Trenbidetik gertuen bizi zaretenak zaudete bereziki Gasteiz Batu plata-



Iker San Miguel Lizarralde, sei metroko panelak jarriko dituzten tokian. M.B.

forman. Alegazioak aurkezteko aukera, baina, edozeini dago zabalik.

Noski. Gu kaltetu zuzen moduan sentitzen gara, baina, azken finean, proiektuak Gasteiz osoari eragiten dio; besteak beste, guztiok ordainduko dugulako. Egitasmoaren kostu ekonomikoa 872 milioikoa da, eta Gasteizko Udalak 130 milioitik gora jarriko ditu.

Alegazioak aurkeztu ostean, zer?

Erabakiak hartzen joango gara, informazioa irteten den neurrian.

Suposatzen dugu alegazioak aurkeztu ostean, erantzun bat egongo dela; besteak beste, Jaurilaritzak, Diputazioak, alderdi politikoei eta auzo elkarteek aurkeztutako alegazio teknikoez gain, herritarrenak ere badaude, eta horiek guztiak erantzun beharko dituzte. Horrez gain, alkateak ere zerbait esango duela uste dugu. Baina, dena dela, Gasteiz Batu ez da honekin amaituko; honek jarraipena izango du.



impresion arte
Serigrafia Publizitatea

Serigrafia
Tanpografia
Inprimatze digitala
Enpresa opariak

Eskaintza bereziak

Avda. del Cantabrico 12, Pab 26 / 01013 Vitoria-Gasteiz
Tel: 945 25 49 32 / Emaila: info@impresion-arte.com
www.serigrafia-impresionarte.es

ESANAK



IGOR GEBARA
MERCEDES (ELA)
Iturria: El Correo

**"Mercedeseak
produkzioari eutsi
nahi badio, beharrezko
ditu 5.000 langileak"**



LEIRE ZUGAZUA
GASTEIZKO SINDIKOA
Iturria: Berria

**"Gasteizko Udalak
etxebizitza plan
integrala egin
behar du"**



IBERNALO BASTERRA
KANPEZUKO ALKATEA
Iturria: Noticias de Álava

**"Gazteak behar ditugu
gure herrietan, eta
erraztasunak jarri
behar dizkiegu"**

ZENBAKITAN

Langabeak

Abuztuan langabe kopuruak

gora egin du Araban, hilabete honetan izaten den joera errepikatuta. 673 langabe gehiago zenbatu dituzte, %3,57 gehiago, eta EAEko hazkunderik handiena izan da; hala, uztaillean baino 3.075 langabe gehiago daude Hego

Euskal Herrian. Aurreko urteetako datuei erreparatuta, ordea, aurtengoa "datu positiboa" dela adierazi du Beatriz Artolazabal Eusko Jaurlaritzako Enplegu sailburuak. Iazko abuztuan baino 9.109 langabe gutxiago daude Hego Euskal Herrian, eta duela hiru urte baino 34.816 gutxiago. Guztira, 19.540 langabe daude Araban.

673

2,4

Bisitariak

Gasteizko turismo bulegoko bisitari kopuruak behera egin du abuztuan. Plaza Berriko aretotik 28.605 bisitari igaro dira aurtan, iaz baino %2,4 gutxiago; 2018an baino 722 lagun gutxiago igaro dira bertatik. Beheraldi "txikia" izan den arren, ordea, datuekin eta bisitarien erantzunarekin "pozik" agertu dira Udaleko turismo arduradunak. Jatorriari dagokionez, Katalunia eta Madriletik etorritako bisitariak izan dira gehienak, eta bisitaldien balorazio ona egin dute.

70

Jarduerak

Jabetze Feministarako

Eskolak urrian ekingo dio jarduerari Gasteizen, eta arreta "desberdintasun iturri guztietan" jarriko dute aurtan. Bederatzigarren edizio honetan, ohiko hitzaldiekin batera beste berrikuntza batzuk ere izango dira; horien artean, Florida zinemetako solasaldi zikloa berreskuratuko dute, eta antzerkiaren eta dokumentalen aldeko apustua ere egingo dute. 70 jarduera baino gehiago izango dira, urritik aurrera.

Mobilizaziorako deia egin du '5ak Gasteizen' herri dinamikak

Hilaren 16an hasiko da 11/13 sumarioko epaiketa Auzitegi Nazionalan, eta hori salatu eta auzipetuei elkartasuna adierazteko '5ak Gasteizen' dinamika abiatu zuten duela hainbat hilabete. Irailaren 14an Bilbon izango den manifestazioaren aurretik, hilaren 7rako mobilizaziorako deia egin dute Gasteizen; 19:00etan, Andre Maria Zuriaren plazan.



47ak Herrian plataformak deituta, elkartasuna adierazteko agerraldia Azpeitian. Z. HITZA



Astelehenean hasi ziren lanak. ALEA

Astelehenean hasi dira Espainiako Bankuaren inguruko lanak

Hamaika hilabeteko epean, Espainiako Bankua eta San Frantzisko kalearen artean dauden espazioak berrantolatuko dituzte. Gasteizko Udaletik jakinarazi dutenez, egungo zoladura aldatuko dute, berri-itu egingo dituzte instalazio eta zerbitzuak, oinezkoentzako lekua irabaziko dute eta hobetu egingo dute Erdi Aroko hiriguneko iragarritasuna.

Artziniegako emakumeek bi eraso lesbofobo salatu dituzte

Artziniegako jaietan parte hartu duten hainbat emakumek salatu dute ospakizunetan bi eraso homofobo gertatu direla. Txosna inguruan gertatu ziren; erasoen ostean, protokoloa abian jarri eta azpiegitura itxi egin zuten gau osoan zehar. Artziniegako Udalak erasoak salatu eta gaitzetsi ditu sare sozialen bitartez eta babesa eskaini die pertsona kaltetuei.

Liburutegia hustu du Zanbranak, osasun zentroa paratzeko

Hamabi urtez itxita egon den liburutegia hustu egin du Zanbrako Udalak, eta behin-behinean osasun zentroa paratuko du bertan, orain arteko kontsultategian berritze lanak egin bitartean. Herria liburutegi gabe uzteak eta "garbiketa" egin den moduak polemika piztu du oposizioan; 6.500 liburu banatu edota edukiontzira bota dituztela salatu du EAJk.

Confecciones Pinedo, S.L.

Euskal Jantziak

San Antonio, 11
Heraclio Fournier, 15
GASTEIZ



www.confeccionespinedo.com

Bizitzari bigarren aukera eman

Bihotzekoak edo arnasbideen buxadurak gertatzen direnean ahalik eta lasterren laguntzeko ikastaroak prestatu dituzte Arabako Medikuen Elkargoak eta Gasteizko Udalak. Halakoetan azkartasuna da gakoa.

JUANMA GALLEGO

"Nor bait gure aurrean hil beharrean, hobe da hari laguntzeko zerbait egitea". Arabako Medikuen Elkargoko idazkariorde Alberto Lopez de Okarizek argi dauka hori. Hainbat egoeratan, biziaren eta heriotzaren arteko aldea segundo bakarretan erabaki daiteke, eta inguruan daudenek egiten dutena funtsezkoa izan daiteke. Bihotzekoak ematen duenean edota arnasbidearen buxada gertatzen denean ematen da egoera hori. Eta estatistikak dio halako larrialdietan gehienetan ez dagoela osasun arloko profesional bat gertu: kasuen %20 besterik ez da hori. Bostetik lautan, berriz, hala edo hala konpondu behar da egoera, laguntza etorri bitartean.

Halakoetan profesionala ez izanda ere gaian gutxieneko trebakuntza bat duen lagun bat izatea hil ala bizikoa izan daiteke, eta horregatik hiritarrak horretan trebatu nahi dituzte. Hori da, hain zuzen, BihotzAraba-Bihotzaren hamabostaldia izeneko programaren bitartez lortu nahi dutena. Arabako Medikuen Elkargoak eta Gasteizko Udalak antolatuta, egitasmoa IV. ediziora iritsi da aurtan. Hilaren 16tik 26ra hamar ikastaro emango dituzte, 160 lagunek doako formazioa jaso ahal izan



Livia Lopez Gasteizko Osasun zinegotzia eta Alberto Lopez de Okariz medikua. ALEA

"DEFIBRILADOREARI IZATEN ZAION BELDURRA ALBORATU BEHAR DA BEHINGOZ"

A. LOPEZ DE OKARIZ, MEDIKUA

dezaten. 16 urtetik gorako hiritarrek parte har dezakete, Arabako Medikuen Elkargoaren egoitzan bertan edota *cursos@icoma.eu* helbidera jota.

Dena dela, Lopez de Okarizek gogoratu du larrialdi horietan lehenik eta behin 112 zenbakira hots egitea dela egin behar den

lehen gauza. Modu horretan, "biziraupen-katea" martxan jartzea lortzen da. Hala, eta bihotzekoen kasuan, laguntza etorri bitartean bihotz-biriketako berpiztea abiatu behar da. Horretarako, desfibriladoreari izan ohi zaion errespetua galdu behar zaiola nabarmendu du adituak. "Horrekin inoiz ez dugu kalterik sortuko, gailuak berak erabakitzen duelako deskarga eman behar duen ala ez", erantsi du. Elektrizitatea izanik, izan behar den ardura bakarra da pazienteak ez ukitzea eta lehor dagoela bermatzea. ■

Abian da euskara ikasteko epea

Hilaren 2tik 12ra zabaldu dute epea Gasteizko gizarte etxe eta kiroldegietan, A1etik C2 mailara bitarteko ikastaroekin. Orotara, 85 talde eskainiko dituzte Arabako hiriburuan, lau ikastarotan banatuta.

ESTI LANAO

Abian jarri dute Gasteizen euskara ikasteko matrikulazioa, *Ikasi eta erabili euskara, merezi du eta!* lelopean. Helduen euskalduntzea sustatzeko helburuarekin, euskaraz bizi nahi duten herritarrek horretarako aukerak izatea nahi dute Arabako Foru Aldundiak, Gasteizko Udalak eta euskaltegiek.

Euskara ikasteko interesa duenak hilaren 12ra bitartean izango du gizarte etxeetako

euskara ikastaroetara apuntatzeko epea. Guztira, 85 talde eskainiko dituzte, eta lau ikastarotan banatuta egongo dira: gurasoei zuzendutakoa (65 talde), 55 urtetik goragokoei zuzendutakoa (12 talde), atzerriko nazionalitatea duten lagunei zuzendutakoa (6 talde) eta merkataritza eta ostalaritzako langileentzako ikastaroa (2 talde).

Gasteizko auzo guztietan izango da izena emateko aukera, gehienak gizarte etxe eta hainbat kiroldegitan. Era

berean, mailen eskaintza zabala jarri dute eskura, A1 mailatik C2ra arte.

Erabilpena

Euskara ikasteko deia egiteaz gain, erabiltzeko deia ere egin dute Aldunditik. Hala, horretarako aukera ematen duten ekintzak aurkeztu dituzte, baita ere: Gasteizko Mintzalaguna, GEU Elkarrekin antolatutako *Igandeak Jai!* Familia giroan euskaraz programa eta gurasoentzako hitzaldiak eta lantegiak. ■



Legutioko Udalak ez du eraso sexistarik onartzen!

GOZO, GOZA JAIK!

Arteaz, despopulazioari aurre

Aste bukaeran hasiko da AtauriArt jaialdiaren zortzigarren edizioa Mendialdean. Aurten, landa-eremuetako despopulazioa izango dute ardatz, artearen bitartez. Denera, hamar ikuskizun izango dira azarora bitartean.

ERREDAKZIOA

Artearen bidez despopulazioari aurre egiteko erronkari eutsi nahi diote AtauriArt jaialdiaren antolatzaileek zortzigarren edizioan. "Zirkuairen eta kale-antzerkiaren jaialdia antolatzearen erronkari eutsi nahi diogu: batetik, eskualdean dugun kultura eskaintza osatzeko, eta, bestetik, kultura herriguneetara hedatzeko", esan du Bapatean taldeko Isra Cuadrado jaialdiaren aurkezpenean.

AtauriArt jaialdi bat baino askoz gehiago dela adierazi du Arratiandi kultur elkarteko Ruth Ibisatek: "Gure landa-herria aldarrikatzeko modu bat da; txikia baina bizia eta etorkizun handikoa. Horregatik, aurten nabarmendu nahi izan dugu artearentzako guneak sortuz ere despopulazioaren aurka egin daitekeela".

Asteburu nagusia aste honetan da, Ataurin; eta bi ikuskizun gehiago izango dira hilaren 14an eta 15ean, Azazetan eta Korresen. Halaber, urrian eta azaroan izango dira emanaldiak. Guztira, hamar ikuskizun bildu ditu aurtengo egitarauak.

Arratiandiko kide eta Atauriko herritar Xabier Oribek adierazi du hilabeteak daramatzatela dena prestatzen. "Argi daukagu merezi duela askok Atauri mapan jartzen baitute jaialdiari esker", nabarmendu du. ■



Shakti Olaizolak 'Baldin Bada' aurkeztuko du AtauriArt jaialdian. BALDIN BADA

Egitaraua

• Irailak 6, Ataurin:

20:00. Dikothomia konpainiaren
Spazi...o ikuskizuna.

• Irailak 7, Ataurin:

12:00. Odei Arregirekin ganbarako
ipuak eta tailerrak.

18:30. Azirkarte elkartearen *Ei*

Sauce zirku emanaldia.

20:00. Might Jambo.

• Irailak 8, Ataurin:

13:00. Shakti Olaizolarekin *Baldin Bada* ikuskizuna.

18:00. Balusca Circusen *Rar*.

• Irailak 14, Azazetan:

20:00. *Filamento el farolero*, Xabi Larrearekin. Plazan.

• Irailak 15, Korresen:

13:00. Goyo magoa. Plazan.

• Urriak 12, Maeztun:

18:30. Despopulazioari buruzko
Soñando un lugar izeneko filma.

Udaletxean.

20:00. *Orgullo rural* ikuskizuna, Elia

Tralara eta Uxia Lopezekin.

Udaletxean.

• Azaroak 23, Ataurin:

20:00. Zirika Zirkusekin, *Pantxika Lamur* emanaldia.

Emakumeei buruzko gogoeta

Bi belaunaldi desberdinetako emakumeek, Amaia Otxoak eta Oitia Ortiz de Lazkanok, "emakumeen inguruko hausnarketa" eraman dute Gasteizko Artgia gunera; hilaren 21era arte izango da ikusgai.

ERREDAKZIOA GASTEIZ

"Zer gertatzen da gizon batzuekin? Zer gertatzen da emakume batzuekin?". Martxan da ikasturte berria Gasteizko Artgia aretoan, eta hausnarketa abiatu dute Oitia Ortiz de Lazkano eta Amaia Otxoaren eskutik. Aurreko galdera horiekin gogoeta egin nahi dute. "Momentu honetan emakumeek jasaten dituzten erasoez hitz egin nahi dugu; zer modutan kontatu diguten historia, eta nola ikusten duen 17 urteko emakume batek

inguratzen duena", azaldu du aretoko koordinatzaile Irantzu Lekuek.

Izeba eta iloba dira Amaia eta Oitia, eta, 38 urteko adin tartearekin, haiek bultzatuko dute hausnarketa. "Ez da ohikoa horrelako adin tarte bat duten artistak elkarrekin aritzea, baina horregatik da hain aberatsa, hain interesgarria", nabarmendu du Lekuek.

Hamaika galdera jarri dituzte mahai gainean artistek. "Zer egoeratan daude emakumeak, nola hezitzen ditugu gure

haurrak, gure kideak, gurasoak, lagunak. Maitasunez aztertu behar dugu gu geu garena, errudun eta epaituak izan gabe, baina jasan beharko dugun erasoari aurre egiteko modu bakarra da", azaldu dute egitasmoaren aurkezpenean. Nondik datozen ulertzeko "erraietara" jo behar dutela uste dute: "Historian zehar ez digute utzi zirkulu publikoetan hitz egiten, ez unibertsitatean, ez parlamentuetan, ez bilera sozialetan. Historia idatzi zuenak berak kontatu digu".

Hala, azaletik bada ere, baina oso modu grafikoan, sei hiztegi entziklopedikotan aztertu dute gizonen eta emakumeen argazkien arteko proportzionaltasuna.

Izeba eta iloba

Amaia Otxoak Arte eta Lanbide Eskolan ikasi zuen hainbat urtez, diziplina desberdinetan. Interiorismoa eta diseinu grafiko ikerketak egiten ditu Goimailako diseinu eskolan. Eta 1992. urtetik hamaika erakusketa paratu ditu.

Oitia Ortiz de Lazkano, bere aldetik, Batxilergoko bigarren mailako ikaslea da. Gazterik hasi zen feminismoa, antikapitalismoa, anarkismoa edota komunismoari buruzko formakuntza ikastaroekin.

Arteari dagokionez, lehendabiziko kontaktua izan du honakoa, izebarekin batera aurkeztutakoa. ■



Oitia Ortiz de Lazkano eta Amaia Otxoa, Jose Lejarreta kaleko Artgia gunean. ARTGIA

Salburua, parkeen arteko izarra

Salburuko hezeguneak berreskuratzeko plan bat onartu zuen Gasteizko Udalak 90. hamarkadaren hasieran, nekazaritza lanak abandonatu zirenean. Handik gutxira eraiki zituzten etxe orratzak.

ARGAZKIAK: IÑAKI LAZKANO, PHOT.OK

TESTUA: ESTITXU UGARTE LZ. DE ARKAUTE

Hiru aintzira nagusik osatzen dituzte Salburuko hezeguneak, eta 1857. urtera arte bederen ukitu gabe egon ziren: Betoñu, mendebaldean; Larregana, iparraldean; eta Arkauti, hego-ekialdean. Aintziren inguruetan larre aberatsak hazten ziren, eta aziendak bertan bazkatzen ziren, bereziki uda garaian, urek behera egitean animaliak erraz sartu ahal zirenean. Larreak baliatzeaz gain, inguruko herritarrek uretako hegaztiak eta beste animalia batzuk ehizatzen zituzten, arrantza egiten zuten eta egurra ere bertatik hartzen zuten. Ekologiaren ikuspuntutik, Euskal Herriko aintzira multzo baliotsuenetako bat zen Salburukoa. Arkautiko aintziraren inguruan, gainera, ordoki harizti zabala zegoen.

Halere, Udalak soroen azalera handitu nahi zuen, urek hartzen zituzten lurrak eta hariztiak laborantzarako baliatzeko. Gogoratu behar da, garai hartan, hezeguneak gaixotasunen iturri zirela uste zutela, eta lurrak lehortzea onuragarria izango zela uste zuten. Hala, 1857an, Larreganeko aintzira drainatzen hasi ziren; geroago, Arkautikoa, eta azkenik, XX. mendearen erdialdean, Betoñuko aintzira lehortu zen.

Larreganeko aintzira lantzea lortu zuten, baina Arkautikoak urez estalita jarraitu zuen denbora luzez. Dena den, hariztia moztu eta aintzira drainatu zutenean, Arkautiko aintzira guztiz lehortzea lortu zuten. 1970az geroztik, Betoñuko aintziraren laurden bat ere suntsitu zen, obra materialez bete baitzuten, eta bertan kirol instalazioak jarri ziren. Inguruek, aldiz, ez zuten aldaketa nabarmenik izan.


Nekazaritza lanak pixkanaka utzi zituztenean, 1990eko hamarkadaren hasieran,

1998AN SALBURUA URBANIZATZEKO TRAMITEAK HASI ZITUEN UDALAK

Salburuko hezegunearen ingurumena lehengoratzeari ekitea erabaki zuen Gasteizko Udalak.

Bide batez, 1998. urtean Salburun etxebizitzak eraikitzeke lehenbiziko tramiteak hasi zituen udal gobernuak, eta 2000. urtean onartuko zuten zinegotziek Salburuko lehen Plan Partziala. Ordutik sei plan onartu ditu Udalak eta beste horrenbeste orube urbanizatu dira, tartean Santo Tomas, Izarra, Ibaialde, Larrein eta Arkaiate. ■





Salburua

Kuadrilla: Gasteiz.

Udalerrria: Gasteiz.

Biztanleak: 18.474 (2018ko Gasteizko Udalaren datuen arabera).

Bitxikeria: 2002. urteko abenduaren 19an jarri zuen Salburua auzoko lehen harria Alfonso Alonso garaiko PPko alkateak.

Baloirik gabeko futbola

EGILEA: TOKI-EDER IKASTOLA 5.B



Materialak

- Petoak
- Zelaia (futbol zelaia bada hobe)
- Porteriak (harriekin egin daitezke)

Nola jolastu

Lehenengo, taldeak egin behar dira; batzuk peto-gabeak izango dira eta beste batzuk petodunak.

Talde bakoitza bere zelaian kokatuko da, eta gola sartzeko zure taldeko jokalaria beste taldearen porterian sartu behar da.

Baina ez da hain erreza, zelai erditik pasatzen zarenean beste taldekoek harrapatu zaitzakete eta. Harrapatzen bazaituzte, geldi geratu behar zara eta zure taldeko batek eskuan ukitu behar zaitu libratu ahal izateko.

Area txikian sartzea lortzen baduzu, ezin zaituzte harrapatu. Baina zurekin batera area barruan beste taldeko kide bat badago, porterian sartzen den lehenengoak lortuko du gola.



ZOZKETAK

PARTE HARTU www.alea.eus/zozetak



Parralen bazkaria **Bi lagunentzat**

ALEAk bi lagunentzat bazkari begetariano bat zozkatuko du Gasteizko Parral tabernan, astean zehar bazkaltzeko. Zozketan parte hartzeko, eman izena irailaren 10a baino lehen. Irailaren 13ko aldizkarian jakinaraziko dugu irabazlearen izena.



ALEA produktuak **Lau sorta**

ALEAk lau material sorta zozkatuko ditu, haurrentzako ALEAren kamiseta, bisera eta telazko poltsa batez osatutakoa. Hau irabazteko, eman izena hilaren 10a baino lehen. Hilaren 13ko aldizkarian jakinaraziko ditugu irabazlearen izenak.



Babestu Arabako euskarazko kazetaritza, eta jaso ALEA astero zure etxean (55 euro urtean).



Telefonoz:
945 71 60 09
On-line:
alea.eus/harpidetzak
E-mailez:
harpidetza@alea.eus

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak ARABAKO ALEAren fitxategi batean sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena kudeatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: harpidetza@alea.eus

AGENDA

Irailaren 6tik 12ra

Euskararen agenda

MUSIKA

ARTZINIEGA Akerbeltz

Villa de Artziniega maketa lehiaketako taldearekin batera.

Ostirala 6, 23:00etan, plazan.

AMURRIO Obaneuke

Baranbioko jaien barruan.

Larunbata 7, 23:30ean, Baranbion.

ARTZINIEGA Guda Dantza

Ostean, DJ Tarantistak.

Larunbata 7, 23:30ean, plazan.

GASTEIZ Montauk

'Igandeak 2019' egitasmoa.

Igande 8, 20:00etan, Artiumen.

DANTZA

GASTEIZ Dantza plazan

Udal Folklore Akademiaren eskutik.

Ostirala 6, 19:00etan, Salburuko Ataria gunean.

ELTZIEGO Larrain eta txulalai

Eltziegoko dantza taldearen eskutik.

Astelehena 9, 19:30ean, plaza nagusian.

BERTSOLARITZA

ARTZINIEGA Plaza librea

Xabi Igoa eta Malen Amenabarrekin.

Larunbata 7, 16:00etan.

ZIGOITIA Zigoitia Euskaraz

Paula Amilburu eta Iñaki Viñaspre.

Igande 8, 11:00etan, Mairuelegorretako kobazuloan.



ALEA

GASTEIZ Olarizuko erromeria

Mugarriak ikustera joateko ibilaldiarekin hasiko da erromeria eguna. Eguerditik aurrera, babarrun jana, haurrentzako jolasak, Tximeleta taldearen dantzaldia, herri kirolak, euskal dantzak, zezensuzkoa eta beste hainbat ekitaldi izango dira.

Astelehena 9, 09:00etatik aurrera, Olarizuko zelaietan.

HAURRAK

GASTEIZ 'Hezeguneko ezkutuko biztanleak'

Bisitaldi gidatua. 5 eta 10 urte bitartean.

Larunbata 7, 11:30ean, Ataria gunean.

ELTZIEGO Haurrentzako jolasak

Mikel Baigorriren eskutik.

Astelehena 9, 17:30ean, pilotaleku zaharrean.

GASTEIZ 'Trakamatraka'

Musika tresnak material birziklatuarekin egiteko saioa. 5 urtetik aurrera.

Asteazkena 11, 17:00etan, Falerinan.

BESTELAKOAK

GASTEIZ Gazte sortegiak

Sormen laborategian izena emateko epea. Oihanderren astelehenero.

Irailaren 25era arte.



ONENETAN ONENA ERDI-PREZIOAREN ERDI-PREZIOAN

Zatoz Euskaltelera



500
MEGA



20GB
DEI
MUGAGABEAK



AISIA
TB_a



FINKOA
DEI
MUGAGABEAK

19'9€
/hil
6 hilabetez



Kontratatu hemen:
EUSKALTEL.EUS | DENDAK | 1717



euskaltel

2019/9/30 baino lehen Zuntza eta Internet kontratatzen dituzten bezero berrientzat da sustapena, eta 12 hilabeteko iraupen-konpromisoa du. Finkoa, 100 megako Internet (500 megako doako probaldi batekin 12 hilabeterako), mugikorra 10 GB + Mugagabeak (20 GB-ko doako probaldi batekin 12 hilabeterako) eta Aisia TBa, hilean 19,9 € ordainduta, sei hilabetez. Gero, paketearen prezioa hilean 65 € izango da. Prezioak, BEZa barne. Informazio gehiago: euskaltel.eus.

Babesle teknologikoa:



ZIGOITIA EUSKARAZ

Abuztuaren 31tik irailaren 8ra
EGITARAU OSOA: zigoitia.eus

